



# Denbora-

## 1 Mamuen mezua

Mamuz mozorrotu ziren eskolako haurrak inauterietan.  
Kolare bereko mamuek hitz bat ezkutatu zuten. Zein?




## 2 Labirintoa

Baratzean ezagutu zirenetik ez dira inoiz banandu. Baserritarrak, ordea, kaxa banatan jarri ditu. Bilatu bi tomateak lotzeko bidea.

## 3 Itzala


Amari oparitzeko lore eder hau erosi du azokan Karmelek. Zein da lorearen itzala?



# - pasak

## 4 Zer dago ezkutuan?


Futbola oso gogoko baduzu, asmatuko duzu zer ezkututzen den itzal hauen atzean.



**Erantzunak:** 1.- Futbolzaletasun, frantses porru, kolaborazionista, balio gabetu eta kezkarri. 3.- f. 4.- Txilibitua, baloia, atea eta zapatilla. 5.- 13,20 euro, 16,80 euro, 7,60 euro.

## 5 Erosketak

Fruta erostera bidali du amak Gorane. Fruta bakoitzaren prezioa kontuan hartuta, kalkulatu zenbat gastatu duen.



$$\text{cherries} \times 3 + \text{apple} \times 2 + \text{orange} \times 6 =$$

$$\text{pear} \times 4 + \text{apple} \times 6 + \text{cherries} \times 5 =$$


$$\text{orange} \times 1 + \text{pear} \times 3 + \text{apple} \times 2 =$$

## Jolasa

### Hori saskiratzea!

Geldirik dagoen saskian pilota sartzea erraza izan daiteke, baina alde batetik bestera mugitzen den saskian?

2 Marraztu 10 bat metroko marra lurrian. Marra horren gainean maindire zaharra tenkatu beharko dute bi jokalarik. Maindirea dagoen lekutik 5 bat metrora beste marra bat marraztu behar da. Puntu horretatik bota beharko du pilota jaurtitzailak.



1 Hartu maindire zahar bat, eta egin 40 bat zentimetroko zuloa, maindirearen erdi-erdian.

3 Pilota maindirearen zuloan sartzea da helburua. Maindirea eusten duten jokalariek, berriz, alde batetik bestera mugitu beharko dute marraren gainean, jaurtitzailak pilota zuloan sar ez dezan.

4 Jokalari bakoitzak pilota edo baloi txiki bat izango du, eta, txandaka, pilota zuloan sartzen ahaleginduko dira.